

AUTOEBALUAZIO OROKORRA

1.gaietik 10.enera

Irakasle taldea
ELORDI GÜENAGA, UDANE
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ
ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE

- 1) Noiz eman zitzaion bultzada nagusiki gure inguruan erizaintzako prestakuntza akademikoari?
 - a) XIX. mendean zehar.
 - b) XX. mendean zehar.
 - c) XX. mendearen lehenengo hamarkadetan.
 - d) Erantzun guztiak okerrak dira.

- 2) Noiz egin zuten bat emaginek, praktikanteek eta erizainek Osasun Laguntzaile Teknikoa tituluari?
 - a) 1973.
 - b) 1977.
 - c) 1953.
 - d) 1963.

- 3) Osasun Laguntzaile Teknikoa tituluari:
 - a) Lehenetsi egiten ziren trebetasun teknikoak, eta Lehen Mailako Arreta Unitateko Buruen aginduen mende zeuden.
 - b) Lehenetsi egiten ziren komunikazio trebetasunak, eta agindu medikoen mende zeuden.
 - c) Lehenetsi egiten ziren erizaintzako zainketa integral guztiak.
 - d) Lehenetsi egiten ziren trebetasun teknikoak, eta agindu medikoen mende zeuden.

- 4) Noiz sartu ziren erizaintza eskolak unibertsitatean?
 - a) 1973.
 - b) 1977.
 - c) 1953.
 - d) 1963.

- 5) Zer ondorio izan zuen erizaintza unibertsitatean sartzeak?
 - a) Irakaskuntza orientazioa aldatu zen.
 - b) Prestakuntza zabaldu zen ospitale eremutik harago.
 - c) Eduki berriak garatu ziren.
 - d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

- 6) Zer da EUE?
 - a) Europako Unibertsitate Eremua.
 - b) Erizaintza Unitate Espezializatua.
 - c) Erizaintza Unitate Erantsia.
 - d) Erizaintza Unibertsitate Espezializatua.

- 7) Zer dira ECTS kredituak?
- a) Osasun Tituluen Eremu Bateratua.
 - b) Osasun Arloko Eskolak.
 - c) Ikasturte bakoitzak ikasleari eskatzen dion lan karga.
 - d) Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 8) Zer jakintza arlotan gauzatu ziren erizaintzako ikasketak Gradu gisa?
- a) Zientzia Soziosanitarioen arloan.
 - b) Osasun Zientzien arloan.
 - c) Zientzia orokorren arloan.
 - d) Medikuntza Zientzien arloan.
- 9) Zenbat ECTS kreditu ditu UPV/EHUko Erizaintzako Graduak?
- a) 420 ECTS.
 - b) 140 ECTS.
 - c) 240 ECTS.
 - d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 10) UPV/EHUko Erizaintzako Graduaren ikasgaiak honela banatzen dira:
- a) Oinarrizko prestakuntza, erizaintzako oinarrizko prestakuntza, funtsezko ikasgaiak eta ikasgai praktikoak.
 - b) Oinarrizko prestakuntza, hautazkoak, nahitaezkoak, kanpoko praktikak eta GRAL.
 - c) Erizaintzako oinarrizko prestakuntza, hautazkoak, kanpoko praktikak eta GRAL.
 - d) Erizaintzako eta osasun zientzietako ikasgaiak.
- 11) «Ezagutzen, prozeduren eta jarrerren multzo bat, konbinatuak, koordinatuak eta integratuak, non norbanakoak 'egiten jakin' eta 'egoten jakin' behar duen, lan profesionalerako» definizioa... zer kontzepturekin lotuko zenuke?
- a) Gaitasuna.
 - b) Helburu pedagogikoa.
 - c) Ikaskuntzaren emaitzak.
 - d) Ikaslearen trebetasunak.
- 12) Gaitasunak elementu hauek ditu:
- a) Trebetasunak.
 - b) Jarrerak.
 - c) Ezagutzak.
 - d) Aurreko guztiak dira gaitasun baten elementuak.

- 13) Gaitasunetara bideratutako ikaskuntzari dagokionez, baieztapen hauetako bat okerra da:
- Ikasleak du bere ikaskuntza prozesuaren gaineko erantzukizuna.
 - Irakaslea da hezkuntza prozesuaren ardatz nagusia.
 - Ikasleak edukiak kudeatzen ditu.
 - Ikasleak edukiak noiz eta nola ikasi erabakitzen du.
- 14) Gaitasunetara bideratutako ikaskuntzari dagokionez, irakaslearen zeregina da:
- Estrategia metodologikoak planteatzea.
 - Hezkuntza prozesuaren ardatz nagusian kokatzea.
 - Planteaturiko estrategia metodologikoen bidez ikasleen jarduerak gidatu eta orientatzea.
 - a eta c zuzenak dira.
- 15) Erizaintza tituluaren garatu beharreko gaitasunak dira:
- 18 gaitasun orokor.
 - Oinarrizko prestakuntzako 15 gaitasun espezifiko eta Erizaintza Zientzietako 40 gaitasun espezifiko.
 - Practicumaren eta Gradu Amaierako Lanaren gaitasunak.
 - Aurreko guztiak dira erizaintza tituluaren eskuratu beharreko gaitasunak.
- 16) Nola diseinatu zen UPV/EHUko Erizaintzako Gradua?
- Berrikuntza proiektu baten esparruan.
 - UPV/EHUko erizaintzako diplomatura ematen zuten hiru Ikastegietako Titulu Batzordeek elkarlanean.
 - Hezkuntzan aditua eta Pedagogian doktorea den pertsona baten orientabideari jarraituz.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 17) Erizaintzako Graduaren irakasgaiak dagokienez, adierazi zein EZ den zuzena:
- Irakasgaiak izan ziren titulua diseinatzeko abiapuntua.
 - Irakasgaiak zentzua ematen die irakasgai bakoitzean garatuko diren gaitasunek.
 - Practicumeko irakasgaiak nahitaezko irakasgaiak dira.
 - Practicumeko irakasgaiak titulua osatzen dute.
- 18) Literaturan jasotzen denez, zein da gaitasunak garatzeko testuinguru egokiena?
- Unibertsitateko eskola magistraletako ikasgela.
 - Unibertsitateko mintegietako ikasgela.
 - Unibertsitateko simulazio ikasgela.
 - Practicuma.

- 19) Gaitasunei eta ikaskuntzaren emaitzei dagokienez:
- Gaitasunen definizioa nahikoa izaten da ikasleek gaitasunak garatu dituztela egiaztatzeko.
 - Ikaskuntzaren emaitzek gaitasunen garapen maila deskribatzen dute.
 - Ikaskuntzaren emaitzak abstraktuak eta neurtzeko zailak izaten dira.
 - Aurreko guztiak okerrak dira.
- 20) Practicum osoa egiteko "giltza irakasgaiak" daude; zer esan nahi du horrek?
- Ikasleek practicum a egin behar dutela "giltza irakasgaietan" matrikulatu ahal izateko.
 - Ikasleek "giltza irakasgaietan" matrikulatuta egon behar dutela practicum a egin ahal izateko.
 - Ikasleek "giltza irakasgaiak" gaindituta izan behar dituztela practicum a egin ahal izateko.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 21) Erizaintzako practicumaren Ikaskuntza Emaitzak erabakitzeko partaidetza metodologia erabili zen. Zenbatekoa izan zen inplikaturako agenteen partaidetza?
- % 58 erakunde laguntzaileetako erizain instruktoreak, % 22 erizaintzako ikasleak eta % 20 unibertsitateko irakasle tutoreak.
 - % 58 erakunde laguntzaileetako erizain instruktoreak, % 20 erizaintzako ikasleak eta % 22 unibertsitateko irakasle tutoreak.
 - % 22 erakunde laguntzaileetako erizain instruktoreak, % 58 erizaintzako ikasleak eta % 20 unibertsitateko irakasle tutoreak.
 - % 20 erakunde laguntzaileetako erizain instruktoreak, % 22 erizaintzako ikasleak eta % 58 unibertsitateko irakasle tutoreak.
- 22) Ikaskuntzaren emaitzak erabakitzeko, abiapuntu gisa, dokumentu bat sortu zen, eta dokumentu horretako atalak 4. mailako gaitasunekin lotuta zeuden. Adierazi zein erantzun EZ datorren bat atal horien izenburuekin.
- Paziente, senide eta taldeekiko harremana.
 - Talde lana.
 - Medikazioa ematea.
 - Erizaintzako Prozesuaren garapena.
- 23) Ikaskuntzaren Emaitzei dagokienez, adierazi zein erantzun EZ den zuzena:
- Ikaskuntzaren emaitzak zein mailatik aurrera garatu behar diren erabaki zen.
 - Ikasmila batean Ikaskuntzaren emaitza bat egiaztatzen bada, ez da berriro ebaluatzen goragoko maila batean.
 - Ikaskuntzaren hainbat emaitza ezinbestekoak dira; hau da, ez badira garatzen, ez da practicum a gaindituko.
 - Ikaskuntzaren hainbat emaitza espezifikoak dira osasun arloaren arabera.

- 24) Erizaintzako Prozedura Orokorren Orriari dagokionez:
- a) Gradua lortu baino lehen ikasleek egiaztatu behar dituzten prozedurak biltzen ditu.
 - b) Orri horretako prozedurak hainbat osasun arlotan gauzatu daitezke.
 - c) Prozedurak irakasgai teoriko-praktikoetan lantzen dira Fakultatean, practicumean gauzatu aurretik.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 25) "Erizaintzako Prozesuaren Garapena" atalaren Ikaskuntzaren Emaitzek hainbat atal dituzte. Adierazi zein EZ den zuzena:
- a) Balorazioa.
 - b) Diagnostiko medikoa.
 - c) Esku hartzea.
 - d) Ebaluazioa.
- 26) Erizaintzako Graduko Titulua arautzen duen CIN/2134/2008 Aginduak honako hau adierazten du practicumari buruz:
- a) Lanbide aurreko praktikak dira, eta ebaluatu egin behar dira.
 - b) Hainbat osasun arlotan egin behar dira.
 - c) Besteak beste, balio profesionalak eta iritzi kritikoa txertatzeko aukera eman behar dute.
 - d) Aurreko guztiak zuzenak dira.
- 27) Donostiako Ataleko Erizaintzako Graduko ikasleek hainbat erakundetan egin dezakete practicuma. Adierazi zein EZ den zuzena:
- a) Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea.
 - b) Ospitale publikoak eta pribatuak.
 - c) Osasun etxeak.
 - d) Zentro soziosanitarioak.
- 28) Practicuma egiteko plazen ezaugarriak aztertu ondoren, 5 arlo hauetan sailkatu dira:
- a) Barne medikuntza; kirurgia; zentro gerontologikoak eta soziosanitarioak; zainketa kritikoak; ama-haurren zainketak; lehen mailako arreta; eta enpresako erizaintza.
 - b) Barne medikuntza; kirurgia; zentro gerontologikoak eta soziosanitarioak; zainketa kritikoak; ama-haurren zainketak; lehen mailako arreta; eta erizaintza onkologikoa.
 - c) Barne medikuntza; kirurgia; zentro gerontologikoak eta soziosanitarioak; zainketa kritikoak; ama-haurren zainketak; lehen mailako arreta; eta unitate eta zerbitzu bereziak.
 - d) Barne medikuntza; kirurgia; zentro gerontologikoak eta soziosanitarioak; zainketa kritikoak; ama-haurren zainketak; lehen mailako arreta; eta erizaintza kirurgikoa.

- 29) Ikasleek practicumean izango duten prestakuntza ibilbidea erabakitzeko, hau da, ikasleek zer practicumetan zein arlotan egin ditzaketen praktikak erabakitzeko, honako hauek hartu ziren kontuan:
- Ikasketa plana.
 - Irakasgai teoriko-praktikoetako gaitasunak.
 - Osasun erakunde publikoek eta pribatuek eskaintzen dituzten plazen kopurua.
 - Aurreko guztiak zuzenak dira.
- 30) Prestakuntza ibilbideari dagokionez, adierazi zein EZ den zuzena:
- Zainketa kritikoen arloan, praktikak 4. mailan egiten dira.
 - Lehen mailako arretaren arloan, praktikak 1. mailan egiten dira.
 - Barne medikuntzaren arloan, praktikak 1. mailatik aurrera egin daitezke.
 - Zentro soziosanitarioetan, praktikak 1. mailatik aurrera egin daitezke.
- 31) Nork parte hartzen du practicumaren kudeaketan?
- Praktiken Programaren arduradunak (PPA).
 - Fakultateko/Ataleko Batzarrak.
 - Kanpoko erakunde laguntzaileek.
 - Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 32) Zer eginkizun ditu Zentroko Praktiken Batzordeak?
- Practicumeko irakasgaien irakaskuntza gidak onartzea.
 - Praktiken eskaintza aplikazio informatikoan grabatzea.
 - Zentroko Praktiken Araudia berrikustea eta eguneratzea.
 - Tutoretzen protokoloan ezarritakoa betetzea.
- 33) Zer eginkizun dituzte practicumeko irakasgaien irakasle arduradunek?
- Ikasleei irakasle tutoreak esleitzea.
 - Ikasleen ebaluazioa berrikustea, eta ikasgaiaren aktan kalifikazioa jartzea.
 - Ikasleen harrerako protokoloa eskatzea kanpoko erakunde laguntzaileetako arduradunei.
 - Praktikekiko gogobetetze inkestak betetzea.
- 34) Ikasturtea amaitzean:
- Zentroak antolatutako informazio saioretara joaten dira irakasle tutoreak.
 - Venia docendi* ziurtagiria bidaltzen zaie instruktoreei.
 - Irakasle tutoreek tutoretza protokoloan ezarritakoa betetzen dute.
 - a eta b erantzunak dira zuzenak.
- 35) Nori dagokio zeregin hauetako bakoitza?
- Ikasleei harrera egitea praktikak egingo dituzten zentroan:
 - Egiaztatzea 2., 3. eta 4. mailako ikasleek modu egokian hautatu dituztela plazak automatrikulan:
 - Egindako hobekuntza proposamenak eta kexak baloratzea, eta horiei erantzutea:

- d) Kanpoko erakunde laguntzaileekin hitzarmenak sina daitezen sustatzea eta proposatzea:
- 36) Instruktoarearen helburu nagusia da...
- a) Ikasleei beren ikaskuntza prozesuan laguntzea.
 - b) Ikasleek kalitatezko erizaintza eskaintzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta gaitasunak eskuratzen dituztela sustatzea.
 - c) Ikaslearen ikaskuntza prozesua lideratzea.
 - d) A eta b zuzenak dira.
- 37) Instruktoareei dagokienez, adierazi zein den erantzun zuzena:
- a) Ikasleen ezagutza teorikoen eta haiek praktikan jartzearen arteko bereizketa egiten saiatzen dira.
 - b) Instruktoareek bi alderdi betetzen direla zaindu behar dute: gutxieneko interakzioa izatea gako agenteekin, haien ikaskuntza ez barreiatzeko, eta harremanak ezartzea paziente eta senideekin modu autonomoan.
 - c) Ikasleen ikaskuntzan lagunduko duen antolakuntza kultura zaindu behar dute.
 - d) Ziurtatu behar dute irakaskuntza-ikaskuntza prozesua eraginkorra dela, ikaslearen esperientzia zein den albo batera utzita.
- 38) Identifikatu tutoretzei buruzko erantzun okerra:
- a) Instruktoareek, ikasleek eta irakasle tutoreek tutoretza guztietan egon behar dute.
 - b) Ikaslearen praktiken zikloan hiru tutoretza egiten dira.
 - c) Instruktoareek, ikasleek eta irakasle tutoreek bigarren eta hirugarren tutoretza partekatzen dute.
 - d) Ezinbestekoa da instruktoareek ikasleen autoebaluazio tresna berrikustea, tutoretzak lantzeari begira.
- 39) Ikaslearen harreraren...
- a) Garrantzitsua da ikasleak kezkatu behar ez izatea taldean integratzearekin eta ahalegin gehienak horretara ez bideratu behar izatea.
 - b) Ikasleak argi eduki beharko ditu harreraren eguna eta ordua.
 - c) Talde guztiari eta ikaslearen ikaskuntza prozesuan oinarrizkoak diren pertsoneri aurkeztu beharko zaie.
 - d) Guztiak zuzenak dira.
- 40) Adierazi zein baieztapen den zuzena:
- a) Beharrezkoa da instruktoareak azpimarratzea ikasleak bere ikaskuntzaren ardura bereganatu, eta hura lideratu behar duela.
 - b) Instruktoareak ziurtatu beharko du ikasleak bere ikaskuntza emaitzak identifikatzen dituela, eta argitu beharko du ikasleak erabaki beharko duela noiz egongo den prestatuta egiaztatzeko prozedura bat ongi eta laguntzarik gabe egiten duela.
 - c) A eta b zuzenak dira.

- d) Guztiak okerrak dira.
- 41) Zein da praktiken zikloan egin beharreko tutoretzen kopurua?
- a) 3 edo gehiago ikasleak behar badu.
 - b) 2 edo gehiago ikasleak behar badu.
 - c) Ikasleak eskatzen dituenak, baina gutxienez 3.
 - d) Zentro/unitate/zerbitzuak erabakitzen dituen guztiak.
- 42) Fakultateak praktikak hasi aurretik trebatzen ditu:
- a) Ikasleak.
 - b) Erizain instruktoreak, irakasle tutoreak eta ikasleak.
 - c) Irakasle tutoreak eta ikasleak.
 - d) Erizain instruktoreak.
- 43) Harrera protokoloak ez du aurreikusten:
- a) Praktikak planifikatzeko moduari buruzko azalpenik ematea.
 - b) Lekua, materiala, eta abar aurkeztea.
 - c) Ikaslearen itxaropenei buruz galdetzea eta horien balorazioa egitea.
 - d) Ikasleari gogoetazko autoebaluazioa aurkeztea.
- 44) Nori dagokio beharrezkoa den informazioa kontrastatzea eta ikaskuntza emaitzen ebaluazioaz galdetzea?
- a) Ikasleari.
 - b) Zentro/unitate/zerbitzuaren erizainari.
 - c) Instruktoleari.
 - d) Irakasle-tutoreari.
- 45) Azken tutoretzari buruzko baieztapen hauetakoren bat okerra da:
- a) Instruktoreak eta ikasleak gogobetetze inkesta betetzen dute.
 - b) Ikaslearen indarguneak eta hobekuntza arloak ezagutzen dira.
 - c) Behin kalifikazioa adostuta, ikasleak, instruktoreak eta irakasle tutoreak ebaluazio orria sinatzen dute.
 - d) Irakasle tutoreak ikasleari eta intruktoreari jakinarazten die mezu bat jasoko dutela non gogobetetze inkesta betetzera gonbidatuko zaien.
- 46) Gogoetan oinarritutako ebaluazio bat planteatu da, ikasleak gaitasunen garapenez ohar daitezen. Hori horrela, zenbat gogoeta-praktika egiten dituzte ikasleek practicum bakoitzean?
- a) Bat
 - b) Bi
 - c) Hiru
 - d) Sei
- 47) Atal hauetako zein dago autoebaluazio tresnan eta ez dago ebaluazio tresnan?
- a) Ikaskuntza emaitza orokorren atala
 - b) Ikaskuntza emaitza espezifikoen atala

- c) Gogoeta-praktikaren atala
 - d) Ebaluazio eta kalifikazio sistemaren atala.
- 48) Honela zehazten da lehen mailako ikasle baten practicumaren kalifikazioa:
- a) Amaierako nota 10 punturen gainekoa da. Zikloaren erdian, erdiko bileran edo bigarren tutoretzan, 2 puntu erabakitzen dira. Zikloaren amaieran, azken bileran edo hirugarren tutoretzan, 8 puntu erabakitzen dira.
 - b) Amaierako nota 10 punturen gainekoa da. Zikloaren hasieran, lehenengo tutoretzan, 2 puntu erabakitzen dira. Zikloaren erdian, bigarren tutoretzan, 2 puntu erabakitzen dira. Zikloaren amaieran, azken tutoretzan, 6 puntu erabakitzen dira.
 - c) Amaierako nota 10 punturen gainekoa da. Zikloaren erdian, erdiko bileran edo bigarren tutoretzan, 3 puntu erabakitzen dira. Zikloaren amaieran, azken bileran edo hirugarren tutoretzan, 7 puntu erabakitzen dira.
 - d) Amaierako nota 10 punturen gainekoa da. Zikloaren hasieran, lehenengo tutoretzan, 1 puntu erabakitzen da. Zikloaren erdian, bigarren tutoretzan, 2 puntu erabakitzen dira. Zikloaren amaieran, azken tutoretzan, 7 puntu erabakitzen dira.
- 49) Honela zehazten da laugarren mailako ikasle baten practicumaren kalifikazioa:
- a) Amaierako nota 10 punturen gainekoa da. Zikloaren erdian, erdiko bileran edo bigarren tutoretzan, 2 puntu erabakitzen dira. Zikloaren amaieran, azken bileran edo hirugarren tutoretzan, 8 puntu erabakitzen dira.
 - b) Amaierako nota 10 punturen gainekoa da. Zikloaren hasieran, lehenengo tutoretzan, 2 puntu erabakitzen dira. Zikloaren erdian, bigarren tutoretzan, 2 puntu erabakitzen dira. Zikloaren amaieran, azken tutoretzan, 6 puntu erabakitzen dira.
 - c) Amaierako nota 10 punturen gainekoa da. Zikloaren erdian, erdiko bileran edo bigarren tutoretzan, 3 puntu erabakitzen dira. Zikloaren amaieran, azken bileran edo hirugarren tutoretzan, 7 puntu erabakitzen dira.
 - d) Amaierako nota 10 punturen gainekoa da. Zikloaren hasieran, lehenengo tutoretzan, 1 puntu erabakitzen da. Zikloaren erdian, bigarren tutoretzan, 2 puntu erabakitzen dira. Zikloaren amaieran, azken tutoretzan, 7 puntu erabakitzen dira.
- 50) Bai autoebaluazio tresnan, bai ebaluazio tresnan, hirugarren tutoretzan ebaluatu eta kalifikatu beharreko ezinbesteko ikaskuntza emaitza orokorreari dagozkien laukien kolorea honako hau da:
- a) Urdin argia.
 - b) Berdea.

- c) Laranja.
d) Horia.
- 51) Azken tutoretza egitean, nork adostu eta sinatu behar dute azken kalifikazioa?
a) Instruktoareak.
b) Instruktoareak, ikasleak eta irakasle tutoreak.
c) Irakasle tutoreak.
d) Irakasle tutoreak eta instruktoareak.
- 52) Gogoeta-praktikak egitean, zer gomendatzen zaio ikasleari?
a) Ospitalean ikusten eta baloratzen dituen egoeretan jartzea arreta.
b) Gai bakoitzari erantzutea, behar dituen lerroak erabiliz.
c) Arreta bere buruan jartzea.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 53) Nork betetzen du autoebaluazio orria?
a) Instruktoareak.
b) Irakasle tutoreak.
c) Ikasleak.
d) Instruktoareak, irakasle tutoreak eta ikasleak.
- 54) Nork betetzen du ebaluazio tresna?
a) Instruktoareak eta ikasleak.
b) Irakasle tutoreak.
c) Instruktoareak eta irakasle tutoreak.
d) Instruktoareak, irakasle tutoreak eta ikasleak.
- 55) Instruktoarearen figurari buruz, zuzena EZ dena adierazi:
a) Kanpo praktika akademikoak egiten diren erakunde laguntzaileko kidea da.
b) Erakunde laguntzailean egiten du lana.
c) Kontratu finkoa izan behar du.
d) Bere egiteko nagusia da prestakuntza jarduerak antolatzea, unibertsitatearekin ados jarrita.
- 56) Kanpo praktikan parte hartzen duten agentei buruz, adierazi zuzena dena:
a) Tutorearen funtzio nagusia da ikasleari jarraipena egitea eta laguntzea.
b) Praktika Programaren Arduraduna (PPA) ikasle guztien tutorea da.
c) Tutorea UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako kidea da.
d) Erakunde laguntzailean ez da egoten unibertsitatearekin koordinatzeko figurarik.

57) Instruktoarearen eskubideen artean daude:

- a) Venia Docendi aitortpena.
- b) Kanpoko praktikak arautzen dituen arautegiaren informazioa izatea.
- c) Prestakuntza proiektuaren informazioa izatea.
- d) Guztiak zuzenak dira.

58) Instruktoarearen eginbeharren artean daude, zuzena EZ dena adierazi:

- a) Ikasleari harrera egin.
- b) Garatu beharreko jarduera antolatu, prestakuntza proiektuan zehaztutakoaren arabera
- c) Ikaslearen zereginak eta autoebaluazioa egin.
- d) Ikasleari buruz eskuratzen duen edozein informazio isilpean gorde.

59) Instruktoarea izateko, nori jakinarazi behar diot nire asmoa?

- a) Lan egiten dudan erakundeko Arduradunari, praktiken koordinazioaz arduratzen denari.
- b) UPV/EHUko Praktika Programaren Arduradunari.
- c) Irakasle tutoreari.
- d) Ikasleei.

ERANTZUNAK

Galdera zenbakia	Erantzun zuzena
1	b
2	c
3	d
4	b
5	d
6	a
7	c
8	b
9	c
10	b
11	a
12	d
13	b
14	d
15	d
16	d
17	a
18	d
19	b
20	c
21	a
22	c
23	b
24	d
25	b
26	d
27	a
28	c
29	d
30	b
31	d
32	c
33	b
34	b
35	a. Pertsona instruktorea. b. Practicum irakasgaiko irakasle arduraduna. c. Zentruko praktiketako batzordea. d. Praktika programaren arduraduna.
36	d
37	c
38	a
39	a
40	c
41	a
42	b

Galdera zenbakia	Erantzun zuzena
43	d
44	c
45	a
46	b
47	c
48	c
49	a
50	c
51	b
52	c
53	c
54	c
55	c
56	a
57	d
58	c
59	a